



**Mila be(der)atziehun laro(g)eita bate(a)n
Euskal Herria zen habi(a)
Eta geroztik hemen zaitugu
Ezpainetan guri irri
Zure sendoa, zure ardura
Izan ditugu gidari
Gure arteko Eguzki zara
Bihotzeko lagun handi**

**Bide malkarrak, une gozoak
Zorroagan ziren hasi
Zuk ereindako hazia da-(e)ta
Oparotasunez jantzi
Hamaika talde, hamaika lagun
Osasune(a)n irabazi(z)
Zuen xamurra sentitzen dugu
Teresa eta Jose Luis**

**Pilartxo Etxeberria
(Zorroaga 2006)**

Doinua: Lazkao Txikik "Goizean goiztar jekitzen banaiz, ..."